

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

274/2010 FORU AGINDUA, martxoaren 25ekoa, nekazaritzan eta abeltzaintzan gasolio erosketak direla-eta jasandako Hidrokarburoen gaineko Zerga itzultzeko prozedura ezartzen duena.

Urtarrilaren 12ko 1/2010 Foru Dekretu Arauak, zenbait zerga aldatzen dituenak, 4. artikulua bigarren apartatuan 52 ter artikulua erantsi zion martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuari, hain zuzen ere Gipuzkoako zerga araudia zerga bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legea egokitzen duen dekretuari. Artikulu horretan, nekazari eta abeltzainei eskubidea aitortzen zaie Hidrokarburoen gaineko Zergan ordaindu edo jasaten dituzten kuoten itzulketa partziala jasotzeko, aurreko urte naturalean egin dituzten gasolio erosketak 20/1998 Foru Dekretuaren 50.1 artikuluko 1.4 epigrafean ezarritako tasaren arabera zergapetu direnean.

Artikulu berri horren 3. apartatuak dio Ogasuneko eta Finantzarako foru diputatua baimendurik geratzen dela Hidrokarburoen gaineko Zergaren itzulketa partziala nola egin ezartzeko, eta prozedura horrek berarekin ekar dezakeela interesatuek zerga aitortpenak aurkeztu behar izatea, baita zentsu arlokoak ere.

Itzulketarako eskubide hori aldi baterako izaeraz zegoen aitortuta 2007. urteaz geroztik, eta aipatutako 1/2010 Foru Dekretu Arauak behin betiko aitortpena eman dio.

Hortaz, kontuan izanik arau aldaketa horrek diferentzia nabarmen bat dakarrela martxoaren 7ko 219/2008 Foru Aginduak arautzen duen prozeduraren aldean, beharrezkoa da beste foru agindu bat onartzea aurrekoa indargabetezko eta nekazari eta abeltzainei gasolio erosketengatik jasandako hidrokarburoen gaineko zerga itzultze aldera jarraitu beharreko prozedura ezartzeko.

Horregatik guztiagatik, honako hau

XEDATU DUT

1. artikulua. Nekazaritzan eta abeltzaintzan gasolio erosketak direla-eta jasandako Hidrokarburoen gaineko Zergaren itzulketa jasotzeko eskubidea aitortzea.

Nekazariei eta abeltzainei eskubidea aitortzen zaie gasolio erosketak direla-eta Hidrokarburoen gaineko Zergan jasandako kuoten itzulketa jasotzeko, baldin eta erosketak horiek aurreko urte naturalean eginak izanik martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuaren 50.1 artikuluko 1.4 epigrafearen arabera zergapetu badira, betiere foru agindu honetan ezartzen diren beharrik ez diren betetzen badituzte.

2. artikulua. Nekazariak eta abeltzainek gasolio erosketak direla-eta Hidrokarburoen gaineko Zergan jasandako kuoten itzulketa partziala eskatzeko era eta epea.

Martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuak 52 ter artikuluan jasotzen duen eskubideaz baliatu ahal izateko, gasolio erosketak egin diren urtea amaitu ondorengo urteko maiatzean nekazari eta abeltzainek ondorengo artikuluan aipatzen den ereduak aurkeztu beharko dute, foru agindu honetan ezarritako baldintzei eta prozedurari jarraiki.

DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

ORDEN FORAL 274/2010, de 25 de marzo, por la que se establece el procedimiento para la devolución del Impuesto sobre Hidrocarburos soportado en la agricultura y la ganadería por la adquisición de gasóleo.

El Decreto Foral Norma 1/2010, de 12 de enero, de modificación de diversos impuestos, en su artículo 4 apartado dos crea un nuevo artículo 52 ter en el Decreto Foral 20/1998, de 3 de marzo, por el que se adapta la normativa tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa a lo dispuesto en la ley 38/1992, de 28 de diciembre de Impuestos Especiales, en el que se reconoce el derecho a la devolución parcial de las cuotas del Impuesto sobre Hidrocarburos, satisfechas o soportadas por los agricultores y ganaderos con ocasión de las adquisiciones de gasóleo que haya tributado al tipo impositivo del epígrafe 1.4 del artículo 50.1 del Decreto Foral 20/1998, que hayan efectuado durante el año natural anterior.

En el apartado tres de este nuevo artículo se autoriza al Diputado o Diputada Foral del Departamento de Hacienda y Finanzas para establecer el procedimiento para efectuar la devolución parcial del Impuesto sobre Hidrocarburos, pudiendo comprender aquél la obligación de que los interesados presenten declaraciones tributarias, incluso las de carácter censal.

Dicho derecho a la devolución viene siendo reconocido desde 2007 con carácter temporal, y ha sido con el citado Decreto Foral-Norma 1/2010, cuando ha tenido un reconocimiento con carácter definitivo

En consecuencia y dado que este cambio normativo supone una diferencia sustancial en relación al procedimiento regulado por la Orden Foral 219/2008, de 7 de marzo, se hace necesario una nueva Orden Foral que derogue la anterior y establezca el procedimiento a seguir para la devolución del Impuesto sobre Hidrocarburos soportado en la agricultura y la ganadería por la adquisición de gasóleo.

En su virtud,

DISPONGO

Artículo 1. Procedencia del derecho a la devolución del Impuesto sobre Hidrocarburos soportado en la agricultura y la ganadería por la adquisición de gasóleo.

Se reconoce el derecho a la devolución del Impuesto sobre Hidrocarburos soportado en la agricultura y la ganadería por la adquisición de gasóleo con ocasión de las adquisiciones de gasóleo que haya tributado al tipo impositivo del epígrafe 1.4 del artículo 50.1 del Decreto Foral 20/1998, que hayan efectuado durante el año natural anterior siempre que cumplan los requisitos previstos en esta Orden Foral.

Artículo 2. Forma y plazo para la presentación de la solicitud de devolución parcial de las cuotas del Impuesto sobre Hidrocarburos soportadas por los agricultores y ganaderos por las adquisiciones de gasóleo.

Para hacer efectivo el derecho al que alude el artículo 52 ter del Decreto Foral 20/1998, de 3 de marzo, los agricultores y ganaderos deberán presentar el modelo al que se refiere el artículo siguiente, durante el mes de mayo del año posterior a aquél en que se realizaron las adquisiciones de gasóleo, en las condiciones y de acuerdo con el procedimiento previsto en la presente Orden Foral.

3. *artikularia. Nekazariak eta abeltzainak ordaindutako edo jasandako kuoten itzulketa partziala eskatzeko eredu eta berau paperean aurkezteko prozedura onartzea.*

1. Onarturik geratzen da, paperezko euskarrian, SGA eredu, «Gasolio erosketak direla-eta nekazariak eta abeltzainak hidrokarburoen gaineko zergan ordaindutako edo jasandako kuoten itzulketa partziala eskatzeko orria» izenekoa, foru agindu honetan Eranskin gisa ageri dena.

2. Aurreko apartatuan aipatu diren eskaerarako, honako prozedurari jarraiki aurkeztuko da SGA eredu:

a) SGA eredu herritarren arretarako edozein bulegotan, Landa Ingurunearen Garapeneko Departamentuaren eskualdeko nekazaritza bulegoetan edo Ogasun eta Finantza Departamentuaren egoitza zentralean aurkeztuko da, eta eskaeran honako datuak adieraziko dira:

1. Eskatzailearen IFZ -9 karaktere-, deiturak eta izena edo sozietate izena, eta zerga helbidea.

2. martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuak, Gipuzkoako zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legera egokitzekoak, 50.1 artikuluko 1. tarifaren 1.4 epigrafean ezarritako tasaren arabera zergapetutako gasolioa (aurrerantzean gasolio hobaritua) kontsumitu duten ibilgailuen matrikula.

3. Gasolio hobaritua kontsumitu duen makina edo aparatua mota eta fabrikazio zenbakia.

4. Hornidura bakoitzeko edo agiri berean bildutako hornidura multzo bakoitzeko, honako hau jarriko da: Fakturaren zenbakia eta data, gasolioa erosi den establezimenduko TIK kodea (Txikizkako Saltzailearen Identifikazio Kodea), erositako gasolio hobarituaren litro kopurua eta ordaindutako zenbatekoa, azken bi horiek bi zifra hamartarrekin biribilduak. Itzulketaren onuraduna Zenbait Hidrokarburoen Txikizkako Salmenten gaineko Zergaren subjektu pasibo ere baldin bada, Txikizkako Saltzailearen Identifikazio Kodea onuradunarena izango da.

Gasolio erosketak gasolio hobaritutako txeeke bidez ordaindu badira uztailearen 7ko 1165/1995 Errege Dekretuak, zerga berezien erregelamendua onartzen duenak, 107.1.b) artikuluan jasotakoaren arabera, aitortzaileak adierazi behar du guztira zenbait litro gasolio hornitu diren establezimendu berean ordainketa modu hori erabilia, eta datu hori eskaeran jaso. Datu horrekin batera honako hauek ere adieraziko dira: Bide hori erabilia ordaindutako zenbateko osoa eta karburantea erosi den establezimendua Txikizkako Saltzaile gisa duen Identifikazio Kodea.

5. Itzulketen transferentziak jaso behar dituen finantza entitatea eta kontu korrontearen kodea (kkk).

b) Eskatzaileak berak sinatu behar du eskaera, edo hala badagokio, hirugarren pertsonen izenean itzulketa eskaera aurkezteko baimendutako pertsonak edo entitateak.

4. *artikularia. Egindako horniketengatik ordaindutako kuotak itzultzea.*

3. artikuluan aipatutako eran aurkeztutako eskaera aztertu ondoren, Gipuzkoako Foru Ogasunak -Zeharkako Zergen Zerbitzuak- zilegi iritziz gero, erabakiko du bidezko kuotak itzultzea onuradunak eskaeran adierazitako kontura transferentzia bat eginez.

Artículo 3. Aprobación del modelo de solicitud de devolución parcial de las cuotas satisfechas o soportadas por los agricultores y ganaderos, y del procedimiento para la presentación en soporte papel de la misma.

1. Se aprueba el modelo SGA en soporte papel de «Solicitud de devolución parcial de las cuotas del Impuesto sobre Hidrocarburos satisfechas o soportadas por los agricultores y ganaderos por las adquisiciones de gasóleo», que se adjunta como Anexo a la presente Orden Foral.

2. La presentación de dicho modelo SGA para las solicitudes mencionadas en el apartado anterior se efectuará con arreglo al siguiente procedimiento:

a) El modelo SGA se presentará en cualquiera de las Oficinas de Atención Ciudadana, en las Oficinas Comarcales Agrarias dependientes del Departamento del Desarrollo del Medio Rural o en la sede central del Departamento de Hacienda y Finanzas, debiendo constar en la solicitud los siguientes datos:

1.º) NIF con 9 caracteres, apellidos y nombre o razón social y domicilio fiscal del solicitante.

2.º) Matrícula de los vehículos que han efectuado el consumo de gasóleo que haya tributado por el Impuesto sobre Hidrocarburos al tipo impositivo del epígrafe 1.4. de la Tarifa 1.ª del artículo 50.1 del Decreto Foral 20/1998, de 3 de marzo, por el que se adapta la normativa tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa a lo dispuesto en la Ley 30/1992, de 28 de diciembre, de Impuestos Especiales (en adelante gasóleo bonificado).

3.º) Tipo y número de fabricación de la maquinaria o artefacto que ha efectuado el consumo de gasóleo bonificado.

4.º) Por cada suministro o conjunto de suministros agrupados en un mismo documento: Número de factura, fecha de la misma, Código de Identificación Minorista (CIM) del establecimiento donde se ha efectuado la adquisición, volumen de litros de gasóleo bonificado adquirido, e importe, ambos datos redondeados a dos cifras decimales. En el caso de que la persona beneficiaria de la devolución sea a su vez sujeto pasivo del Impuesto sobre las Ventas Minoristas de Determinados Hidrocarburos, el Código de Identificación Minorista a consignar será el de la persona beneficiaria.

En el supuesto de adquisiciones satisfechas mediante cheques-gasóleo bonificado, conforme a lo previsto en el artículo 107.1.b) del Reglamento de los Impuestos Especiales, aprobado por el Real Decreto 1165/1995, de 7 de julio, el declarante deberá determinar de forma global por todos los suministros efectuados en un mismo establecimiento y satisfechos mediante la utilización de este medio de pago específico, la cantidad de litros suministrados, y consignar este dato en la solicitud junto con el importe total satisfecho por este medio de pago y el Código de Identificación Minorista del establecimiento donde se ha efectuado la adquisición del carburante.

5.º) Identificación de la entidad financiera y del código de la cuenta corriente (c.c.c.) a la que deban efectuarse las transferencias de la devoluciones.

b) La solicitud deberá estar firmada por el propio solicitante o, en su caso, por la persona o entidad autorizada a presentar solicitudes de devolución en representación de terceras personas.

Artículo 4. Devolución de las cuotas por los suministros efectuados.

En base a las solicitudes presentadas a que se refiere el artículo 3, la Hacienda Foral de Gipuzkoa, Servicio de Impuestos Indirectos, acordará, en su caso, la devolución de las cuotas correspondientes, mediante transferencia bancaria a la cuenta indicada por el beneficiario en la solicitud.

5. *artikularia. Itzulketaren onuradunen obligazioak.*

Foru agindu honetan esandakoagatik Hidrokarburoen gaineko Zergaren itzulketa jaso behar duten titularrek beren esku gorde beharko dituzte itzulketa eskaeran adierazten diren horniketak egiaztatzeko fakturak. Onuradunek 4 urtez gorde beharko dute dokumentazio hori, eskaera aurkezteko epea amaitzen denetik aurrera kontatuta.

Era berean, derrigorrezkoa dute gasolio erosketak egin dituzten urte berean izena emanda egotea, jarduera horiei dago-kienez, enpresari, profesional eta atxikitzaileen erroldan, eta aitorpena aurkeztuta izatea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarengatik edo Sozietateen gaineko Zergarengatik, nekazaritza edo abeltzaintza jarduerarako aukeratutako izaera juridikoa zein den.

Xedapen gehigarria.

Ogasuneko zuzendari nagusia gaitzea.

Ogasuneko zuzendari nagusiak beharrezko xedapenak eta jarraibideak eman ahal izango ditu foru agindu honetan jasotako gauzatu eta betetzeko.

Xedapen indargabetzailea.

Indargabetu egiten da martxoaren 7ko 219/2008 Foru Agindua, nekazariak eta abeltzainek gasolio erosketengatik Hidrokarburoen gaineko Zergan ordaindutako kuoten itzulketa berezia egiteko prozedura ezartzen duena.

Amaierako xedapena. Indarrean jartzea.

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2010eko martxoaren 25a.—Pello González Argomaniz, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua.

(2849)

(3688)

Artículo 5. Obligaciones de los beneficiarios de la devolución.

Los titulares de la devolución del Impuesto sobre Hidrocarburos a los que se refiere la presente Orden, deberán estar en posesión de las facturas acreditativas de cada uno de los suministros que se incluyan en la correspondiente solicitud de devolución. La referida documentación deberá conservarse por los beneficiarios durante un periodo de 4 años a partir de la fecha en que finaliza el plazo de presentación de dicha solicitud.

Asimismo, deberán haber estado inscritos en el mismo año en el que se realizaron las adquisiciones de gasóleo, y en relación con estas actividades en el Censo de empresarios, profesionales y retenedores y haber presentado declaración por el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas o del Impuesto sobre Sociedades, según sea la forma jurídica adoptada para el ejercicio de la actividad agrícola o ganadera.

Disposición adicional.

Habilitación al titular de la Dirección General de Hacienda.

Se habilita al titular de la Dirección General de Hacienda, para dictar las disposiciones o instrucciones necesarias en ejecución y cumplimiento de lo previsto en esta Orden Foral.

Disposición derogatoria.

Queda derogada la Orden Foral 219/2008, de 7 de marzo, que establece el procedimiento para la devolución extraordinaria de cuotas del Impuesto sobre Hidrocarburos soportadas por agricultores y ganaderos.

Disposición final. Entrada en vigor.

La presente Orden Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Donostia-San Sebastián, a 25 de marzo de 2010.—El diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, Pello González Argomaniz.

(2849)

(3688)

Jarraibideak, nekazaritzan eta abeltzaintzan gasolioa erostean ordaindutako Hidrokarburoen gaineko Zergaren itzulketaren eskaera betetzeko.

Eskaera bat bete beharko da onuradun bakoitzeko.

1. Onuraduna.

IFZ/NA adierazi beharko da, onuradunaren izen-abizenak edo enpresaren izena, bai eta haren telefonoa eta zerga helbidea ere.

2. Helbideratze kontua.

Itzulketak egiteko helbideratze kontuaren zenbakia jarriko da (20 digitu).

3. Erabilitako tresna.

Erabilitako tresna deskribatuko da, bere matrikula edo identifikazioa zehaztuta.

Ad: Traktorea VE12435

4. Erosketak.

Erosketa bakoitza zehaztu beharko da, eta datu hauek eman:

- ✓ Fakturaren zenbakia.
- ✓ Fakturaren data.
- ✓ Hornitzailearen TIK kodea (txikizkariaren identifikazio kodea).
- ✓ Erositako litroak, bi hamarren adierazita.
- ✓ Itzultzea eskatzen den faktura bakoitzeko zenbatekoa, guztira.

Gasolio txeeekin egindako erosketetan, lerro bakar batean zehaztutako dira establezimendu bakoitzean egindako erosketa guztiak. Kasu honetan, fakturaren zenbakiaren zutabean CH jarriko da eta data bete gabe utziko da.

Instrucciones para cumplimentar la solicitud de devolución del Impuesto sobre Hidrocarburos soportado en la agricultura y la ganadería por la adquisición de gasóleo.

Se presentará una solicitud por la persona beneficiaria.

1. Persona beneficiaria.

Se indicará el NIF/DNI, el nombre y apellidos o razón social de la persona beneficiaria, así como su teléfono, y domicilio fiscal.

2. Cuenta Domiciliación.

Señalar la cuenta corriente de domiciliación de la devolución correspondiente (20 dígitos)

3. Medio utilizado.

Se describirá el medio utilizado, así como su matrícula o identificación.

Ej: Tractor VE12435

4. Adquisiciones.

Se deberá relacionar cada una de las adquisiciones realizadas indicando:

- ✓ Número de factura.
- ✓ Fecha de la factura.
- ✓ Código de Identificación Minorista (CIM) del proveedor.
- ✓ Litros adquiridos, con dos decimales.
- ✓ Importe total de cada factura.

En el caso de adquisiciones satisfechas mediante cheques gasóleo se indicará en una sola línea el total de los suministros efectuados en un mismo establecimiento. En este caso el número de factura llevará el valor CH y se dejará la fecha en blanco.